




**Euskal Autonomia Erkidegoko
zebra muskuiluaren (*Dreissena
polymorpha*) larben
jarraipenerako sarea
(URA/003A/2017)**

TXOSTEN LABURTUA

Behin betiko txostena 2018

Ekolur-Anbiotek ABEE

AGIRI MOTA: Urteko laburpena.

AGIRIAREN TITULOA: Euskal Autonomia Erkidegoko zebra muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) larben jarraipenerako sarea (URA/003A/2017).

EGILEA: Ekolur-Anbiotek Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (ABEE). Barne erref LA20161106.

TEKNIKARI ARDURADUNAK: Henar Fraile Fraile, Manu Rubio Etxarte, Begoña Gartzia de Bikuña, Imanol Cia Abaurre eta Alberto Aguirre Gaitero (ABEEren arduraduna).

LAGUNTZAILEAK: Ana Felipe Díaz, Garazi Otxoa Etxegarai, Jesús Arrate Jorrín, José Manuel Leonardo Ibarrola y Salvador Luján Bárcena.

DATA: 2018ko abendua.

Aurkibidea

**Euskal Autonomia Erkidegoko zebra muskuiluaren
(*Dreissena polymorpha*) larben jarraipenerako sarea**
Txosten laburtua. 2018.

1. Egindako lanen laburpena	1
2. Emaita eta ondorio nagusiak	2

1.

Egindako lanen laburpena

2018 urtean Ekolur-Anbiotek Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (aurrerantzean, Ekolur-Anbiotek ABEE) “EAEko zebra muskuiluaren larben jarraipenerako sarea (2017-2019 kanpainak)” izeneko lanaren esleipenduna izan zen (URA/003A/2017zk. espedienteak).

Zebra muskuiluaren larben jarraipena egiteko 2018. urtean, uztaila eta urria artean, 4 laginketa-kanpaina egin dira eta guztira 78 estazioetan laginak hartu dira.

2018. urtean lagindu diren estazio-mota gehienak ur motelak dituzten ibai-ibilguak edo presa txikiak dituztenak izan dira (42 guztira), urtegiak (24 guztira), 9 baltsa eta 3 hezegun.

Banaketa espazialari, lagindutako masa motari eta laginketa-metodologiari dagokienez, aurreko urteetan diseinatutako oinarritzko sarea aintzat hartu bada ere, zuzenketa batzuk sartu dira. Alde batetik, masa batzuetako estazioak bertan behera utzi dira: espeziearen presentzia handia duten estazioak, bai eta estazio kopuru altua duten zenbait masatako estazio batzuk ere. Bestetik, estazio berriak gehitu dira, positibo berriak atzeman direlako edo eremu horietan zabalkuntza aurreikusten delako. Zebra muskuiluaren larben jarraipenerako sarearen barnean, 2018 urtean egindako 4 laginketa-kanpainak kontuan hartuta, guztira 310 lagin aztertu dira.

Zehaztasun gehiagorako, kontsultatu Ekolur-Anbiotek ABEEren Azken Txostena (LA20171211)

2.

Emaizta eta Ondorio Nagusiak

2018 urtean aztertutako 78 estazioetatik 11 tan agertu dira larbak; horietako 3 urtegieta estazioak izan dira eta 8 ibaieta estazioak.

Uribarri-Ganboan espeziearen zabalkuntza 2018. urtean mantentzen da, baita ere kutsatutako urtegi nagusietatik behera ere: Zadorra ibaian Tresponderaino (Ullibarri-Ganboa urtegian behera); Santa Engracia ibilguan, presatik gertu (Urrunaga behera) eta Arratiaren ardatzan, Lemoako herriraino (Undurraga behera).

Uribarri-Ganboan 2018 urtean zebra muskuiluaren larben ugartzea eman da eta 2017. urtean baino kontzentrazio handiagoak izan ditu. 2018. urtean ontziralekua dagoen estazioan (ULL-E4) larben dentsitatea handiagoa izan da eta eginiko lau kanpainetan positiboa eman du. Presa aldeko estazioan (ULL-3) emaitza positiboak uztaila eta iraila bitartean ematen dira. Urtegiaren ur-maila baxua denean eta erraz ikus daitekeenean, ale helduak oso ugariak dira.

Ullibarri-Gamboa urtegian behera larben agerpenak handitze nabaria izan du. Zadorrako ZAD336-E estazioan (urtegitik gertuen dagoena da) kanpaina guztietan larbak agertzen dira; ZAD380-2-an (Gamarra Nagusian) uztaila eta abuztuko kanpainetan soilik; eta ZAD576-E-an (Tresponderen) uztailean eta irailean positibo azpiko balioak agertzen dira. Urrunaga urtegian behera, ZSE246 estazioan, abuztuko kanpainan positibo bakarra antzeman da (estazio honetan larbak aurkitu ziren 2012, 2013 eta 2015 urteetan).

Arratia ibaiaren estazioetan, Undurraga urtegian behera, larben dentsitate handitzea antzeman da. Dentsitate altuenak presatik gertuen dauden estazioetan kokatzen dira (IAR223-E eta IAR224-E), estazio hauetan abuztuan positibo argiak eman dira, baina gainontzeko kanpainetan ez dira larbak aurkitu. Lemoan eta presatik oso urruti dagoen IAR222-E estazioan 2013. urtean larben presentzia antzeman zen eta 2018. urteko abuztuan larbak hauteman dira berriro.


2018ko uztailean eta abuztuan Lekubasoko urtegian antzeman dira larbak berriz ere, abuztuko emaitza positiboa izan da eta uztailekoa, ordea, subpositiboa. 2017. urtean larben agerpena antzeman zen baina kontzentrazio baxuagoan. Nerbioiko Arrigorriaga estazioan larbak kontzentrazio baxuetan antzeman dira ere (2018ko uztailean soilik).

Ibaizabalen Atxurin (IBA526) edo Undaben (ZUN) aurreko urteetan larben agerpenak antzeman ziren baina 2018. urtean ez dira antzeman.

Urteko sasoiaren arabera larben dentsitateak aldatu egiten diren arren, bistakoa da zebra muskuilua hedatzen ari dela, batez ere, populazio garatuak dituzten urtegietatik zabalduz eta espezie akuatikoen edo ur-ingurunearekin loturiko espezien (gizakiok barne) mugimenduei jarraituz ibaien ibilgu naturalak erabiltzen dituztelarik.

Zehaztasun gehiagorako, kontsultatu azken Txostena (LA20171211 Ekolur-Anbiotek ABEE).

Landa-lanean jasotako datu fisiko-kimikoak (T^a , pH, oxigeno disolbatua eta eroankortasuna) ABEEren azken Txostenean daude kontsultagai. Espeziearen garapenerako mugatzaileak diren aldagaiek (T^a eta pH) potentzial kolonizatzaile altua edo neurrizkoa agertzen dute gehienetan.




Irudia 1. Zebra muskuiluaren larben banaketa EAEn. 2018. urtean

Oiartzunen, 2018ko abenduaren 30n



Manu Rubio Etxarte
Biologian lizentziatua
EKOLUR INGURUMEN AHOLKULARITZA SLL-ko
teknikaria



Henar Fraile Fraile
Biologian doktorea
ANBIOTEK SLko teknikaria



Alberto Aguirre Gaitero
0247 kolegiatua - Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
EKOLUR-ANBIOTEK ABEEren arduraduna